

1979-VII-20

Elizondon, 1979. eko Uztailaren 20an, "Euskal Jaien" lehenengo mendeurrena ospatuz egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordeko, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. Atxa, P. Charritton, M. Izeta, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. M. Satrustegi idazkari dela.

Hiriart-Urruty eta Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

a) *GOIZEKO BILKURAREN BERRI*

Batzango Udaletxean, goizeko hamaiketan, gai hauek erabili dira:

1. Gernikako Estatutuan Euskaltzaindiari buruz egindako aldaketa ikusirik, bere ofizialtasuna Lizarrakoak zalantzarik gabe aitortzen zuela adieraztea erabaki da, oraikoa, atzerakada arriskugarritzat emanez.

2. Erakusleen erabakia. Bergarako Batzarrean aztertutako gaietan, erakusleena zegoen erabakiaren zai. Ergatiboa eta pasiboa, *hauk/-hauek...* bereiztea ala ez, zegoen zalantzan. Eztabaidatu ondoan, bozkatu egin da. Ez bereiztea onartu da bederatzitotoz. Hiru txartel agertu dira aurka. Hauek, horiek, haiek, izango dira beraz bietarako esaera bakarrak.

3. "H"-ri buruz, oinarrizko bide batzu ikusi dira, datorren batzar batera hitz zerrendaren mugaketa ekartzeko.

b) *BATZAR IREKIA*

Arratsaldeko seietan, Elizondoko Zirkuloan egin da batzar irekia. Timoteo Plaza, Batzango alkate jauna mintzatu da lehenik batzarkide guzietan ongiatorria ematen.

L. Villasante Euskaltzainburuak egin du gero, Euskal Akademiak esku artean dituen eginkizunak aipatuz.

Euskaltzainburuak Jon Oñatibia euskaltzain laguntzailearen hil berria eman du.

J. Haritschelhar jaunak eman du, gero, duela ehun urteko "Euskal Jai" haien berri.

J. San Martin euskaltzainak, Bruno Etxenike euskal idazle baztandarraren bizitza eta lana aztertu ditu.

M. Izeta euskaltzain laguntzaileak, Baztango euskararen egoeraz txostena irakurri du.

Jose Urroz irakasleak, "Gau eskolak" izenarekin alfabetatze-euskalduntzen egindako lana aurkeztu du.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua

Luis Villasante

Idazkaria

José M.^a Satrustegi